

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

3448

EBAZPENA, 2020ko abuztuaren 26koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez iragartzen baita, 2020ko ekitaldirako, enpresa I+G bultzatzeko Hazitek programaren II. faserako deialdia.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urtarrilaren 31ko Agindua-
ren bidez arautzen da enpresa I+G bultzatzeko Hazitek programa (2017ko martxoaren 2ko EHAA,
43. zk.). Agindu hori Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko abendu-
aren 17ko Aginduak aldatu du (2018ko abenduaren 27ko EHAA, 248. zk.).

Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearen 2019ko abenduaren 10eko
Ebazpenaren bidez (2019ko abenduaren 20ko EHAA, 242. zk.) iragarritako I. fasea amaitu
ostean, eta Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearen 2020ko uztailaren
1eko Ebazpenaren bidez ebatzi eta jakinarazi zaie interesdunei, aipatutako agindu arautzailea-
ren 12.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, II. fasearen deialdia egiten da, I. fasean onartu diren
proiektuei laguntzak adjudikatzeko, 2020ko ekitaldian, eta, horretarako, behar diren arauak eman
behar dira.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2020ko otsailaren 19ko Agindua-
ren bitartez onartu zen 2020ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta dago laguntza-programa
hau. Euskadi.eus-eko egoitza elektronikoa dago Plana eskura. Halaber, Euskal Autonomia Erki-
degoaren 2020. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2019 Legeak
baimendutako kredituen arabera, honako dirulaguntza-deialdi honek nahikoa aurrekontu-estal-
dura dauka.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 12.3 artikuluan ezarritako eskumenaz baliatuz, honako
hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea hau da: II. fasearen deialdia egitea, I. fasean onartutako proiektuetar-
ako laguntzak adjudikatzeko. I. fasea Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren
2017ko urtarrilaren 31ko Aginduan aurreikusi zen, eta horretarako deialdia 2019ko abenduaren
10eko Ebazpenaren bitartez egin zen (2019ko abenduaren 20ko EHAA, 242. zk.). Aipatutako
agindu horren bitartez, enpresa arloko I+G bultzatzeko Hazitek laguntza-programa arautzen da,
2020ko ekitaldiari dagokionez.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdiko laguntzak finantzatzeko, 87.191.230 euro erabiliko dira. Erabilera horrek bat eto-
rri beharko du Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren 2020ko ekitaldiko
aurrekontu-kredituekin.

Deialdiaren guztizko zenbatekoko 39.191.230 euro bideratzen dira izaera lehiakorreko I+G
proiektuak finantzatzera, eta, 48.000.000 euro, izaera estrategikoko proiektuak finantzatzera.

Eskatutako laguntzen guztizko zenbatekoa kontuan izanik eta haiek ebatzi baino lehen, zenbateko horiek aldatu ahal izango dira; betiere Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren beste I+G+b laguntza-programa batzuk gauzatzearen ondorioz agortu gabe geratzen diren aurrekontu-baliabideen arabera. Aldaketarik izanez gero, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordeak ebazpena emango du, aurreko guztiaren berri emateko.

3. artikulua.– Betekizunak.

Deialdi honetako laguntzak eskuratu ahal izateko, egiaztatu beharko da Hazitek programa arautzen duen aginduaren 3. eta 20. artikuluetan proiektuei eta entitate eskatzaileei buruz ezarritako betekizunak betetzen direla.

4. artikulua.– Eskabideak: aurkeztea eta epea.

1.– Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urtarrilaren 31ko Aginduaren 20. artikuluan ezarritako zehaztapenekin bat etorri egin beharko da eskabidea; agindu horren bidez arautzen da enpresa I+G bultzatzeko Hazitek programa.

2.– Eskabidea lortzeko eta hori betetzeko, ondoren adierazten den egoitza elektronikoa baka-rrik egin ahal izango da:

<https://www.euskadi.eus/servicios/1030805/> (gaztelania)

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1030805/> (euskara)

Eskabidearen ondorengo izapideak, bide elektronikoz, jakinarazpenak eta espedientearen kontsulta barnean direla, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta»ren bidez egingo dira:

<https://www.euskadi.eus/micarpeta>

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2020ko irailaren 24an amaituko da, 12:00etan.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, eta laguntzak emateko proposamena egiteko, ebaluazio-organo bat eratzen da, zeinaren osaera hauxe izango baita:

Lehendakaria: teknologiaren arloan eskuduna den zuzendaritzako titularra, Alberto Fernández González edo karguan ordezkaturiko duen pertsona; eta ordezkoa: Ekintzaitzaren, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritzako titularra, Aitor Urzelai Inza, edo karguan ordezkaturiko duen pertsona.

Honako kide hauek izango dira bokalak:

- Industriaren garapenaren arloan eskumenak dituen zuzendaritzako titularra, Mikel Amundarain Leibar edo karguan ordezkaturiko duen pertsona; eta ordezkoa: industriaren garapenaren arloan eskumenak dituen zuzendaritzako teknikari bat, Rosa Murillas Maza.

- SPRIren ordezkari bat, Miguel García Altuna; eta ordezkoa: Maite Hernández Hernández.

- Teknologiaren arloan eskumenak dituen zuzendaritzako teknikari bat, Larraitx Segurola Bereciartua; eta ordezkoa: Natividad Niño Bartolomé, zeinak idazkari-eginkizunak egingo baititu.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 26a.

Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea,
ESTÍBALIZ HERNÁEZ LAVIÑA.